

ALDI BATERAKO ERAKUSKETETARAKO ESKABIDEA CRISTINA ENEA FUNDAZIOA

Interesa duen pertsonak edo erakundeak Cristina Enea Fundazioko (aurrerantzean, CEF) Ingurumen Baliabideen Zentroko erakusketa-aretoetarako erakusketa-proposamen bat bete eta sinatu beharko du, dokumentu honetan adierazitako puntuak barne, eta eskaera posta elektronikoz bidali beharko du cristinaenea@donostia.eus-era. Eskatzaileak behar besteko aurrerapenarekin bidali beharko du proposamena (gutxienez 12 hilabete lehenago), eta Erakusketa Proiektuen Arduradunarengana jo beharko du.

PERTSONA EDO ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK	
Izena:	
Helbidea:	
Herria:	Posta kodea:
IFZ:	E-mail:
Proiektuaren egile/erakunde arduraduna:	
Komisarioa:	Telefonoa:
ARTISTAREN DATUAK (Aurreko puntuaren desberdina bada)	
Izena:	
Telefonoa:	E-mail:
CV:	
ERAKUSKETA PROPOSAMENAREN DATUAK	
Izenburua EUS eta CAS:	
Erakusketa proposamenaren laburpena:	
Erakusketako helburuak: (1)	
Erakusgai jartzeko artelanen ezaugarriak: (2)	
Hasiera eta bukaerarako daten proposamena: (3)	
Eskatutako erakusgelak: (4)	
Erakusgelak egokitzeko beharrak: (5)	
Behar expografikoak: (6)	
Muntaketa eta desmuntaketa: (7)	
Segurtasun eta kontserbazio behar eta/edo ezaugarriak: (8)	
Jarduera osagarrien proposamena: (9)	
Erakusketako ordainsariak eta/edo alokairua: (10)	



(1). Aurkeztutako proiektuak ingurumenarekin, ekologiarekin, jasangarritasunarekin eta CEFren lan-ildoekin zerikusia izan beharko du beti.

(2). Lagin grafiko bat izango du (argazkiak, 3D-ak, paneletako materiala, etab.), erakusketaren eta erakutsi beharreko lanen berri emateko. CEFak azaldu beharreko obra/material/ondareari buruzko informazio zehatzagoa eskatu ahal izango du, egoki baderitzo.

(3). CEFak zehaztuko ditu erakusketaren hasiera eta amaiera datak, bai eta izendatutako aretoak ere, nahiz eta eskatzaileak gehien komeni zaizkion aretoak eta datak iradoki. Erakusketa ohiko ordutegian eta CEFak ezarritako ordutegian egongo da zabalik.

(4). Cristina Enea parkean dagoen Ingurumen Baliabideen Zentroan lau areto daude erakusketetarako: Urumea galeria (lurpea), Ulia aretoa (beheko solairua), Igeldo aretoa (lehen solairua) eta Santa Klara aretoa (lehen solairua). Bi aukera daude aretoak aukeratzeko orduan:

- Urumea galeria erabiliko duen proposamena
- Ulia, Igeldo eta Santa Klara aretoak erabiliko dituen proposamena

Oro har, proposamenak bi aukeretako baterako aurkeztu beharko dira, eta ezingo dira beste banaketa bat duten aretoak erabili, salbu eta Erakusketa Proiektuetako Arduradunak berariazko baimena ematen badu.

(5). Arettoak dauden instalazio-baldintzetan lagatzen dira. Dekorazio- edo egitura-elementuak aldatzea dakarren inolako aldaketarik ez da baimenduko. Edozein aretotan egiturazko aldaketaren bat behar izanez gero, Erakusketa Proiektuetako Arduradunak ahalmena izango du eskatzailearekin adosteko.

(6). Eskatzaileak obren osagarri diren material expografikoen beharrak adieraziko ditu (peanak, telebistak, proiektoreak, panelak...). Gerta liteke CEFak bere jabetzan izan dezakeen materiala eskatzea; horretarako, behar espezifikoak eta horien ezaugarriak adieraziko dira, CEFak utzi ditzakeen ala ez adieraz dezan.

(7). Arau orokor gisa, muntaketa eta desmuntaketa, bai eta horretarako behar den materiala ere, eskatzailearen kontura izango da, eta CEFko taldeak gainbegiratuko du, emandako iradokizunak kontuan hartuta, eta muntaketari laguntza eman ahal izango dio. Erakusketa Proiektuetako Arduradunak baimendutako salbuespenetan izan ezik, erakusketa 9:00etatik 16:00etara bitartean muntatuko da. Eraikineko gainerako langileek beren lana behar bezala garatzeko zaratak eta/edo eragozpenak sortuko dituen muntaketa bat bada, CEFak eskatu ahal izango du muntaketa aldeztu aurretik esandako ordutegi jakin batera mugatzea.

(8). CEFak izenpetutako aseguru-polizak estaliko ditu lanek garraioan eta erakusketako datetan artelaneak jasan ditzaketen kalteak, lapurretak eta abar, eta horiek ez gertatzeko bitartekoak jarriko ditu. Erakusketa-aretoak uneoro egongo dira zaintza-kameren bidez grabatuta (telebista-zirkuitu itxiko kamerak). Halaber, CEFak bere gain hartuko ditu mantentze- eta garbiketa-gastuak. Oro har, erakusketa zaintzeko proposamen honen eskatzaileak edota piezaren baten jabeak pertsona fisiko bat jartzeko ekaeraren gastua proposameneko arduradunaren kontura izango da.

(9). Eskatzaileak erakusketarako jarduera osagarrien proposamen bat adieraziko du, hala nola bisita gidatuak, hitzaldiak eta/edo erakusketak lagunduko dituen tailerrak. Jarduera horiek eskatutako ordainsarien barruan daudela ulertuko da.

(10). Eskatzaileak kobratu beharreko ordainsariak adieraziko dira, zergen banakapena barne. Eskatzaileak egile-eskubideak kudeatzen dituen edozein erakunderi atxikitzen zaiola ere jakinarazi beharko du, eta hala balitz, erakusketa/proiektu horrek diru-laguntzarik, esponsorizaziorik edo laguntzarik duen jakinarazi beharko dio Erakusketa Proiektuetako Arduradunari.